

IKASGAIAREN IZENA: MUSIKA

DEPARTAMENTUA	MINTEGIA: MUSIKA
ZERTARAKO	Musikaz gehiago gozatze aldera ikasturtean zehar eskura dituzten musika-bitartekoetara autonomiaz eta jarrera kritikoz hurbiltzen saiatuko gara, musikarekiko sentsibiliziora landuz, musikaren balorazio estetikoaren ahalmen handiagoa eskuratu nahian.
ZER IKASIKO DUZU	Ikasturte honetan XX-XXI. mendeko musika entzun, aztertu eta jotzen arituko dira hainbat estilo eta garaiko musika ezagutzeko. Ikasturtean zehar, besteak beste, musikaren alorrean teknologia berriak landuko dira eta horretarako zenbait informatika-baliabide eta ikus-entzunezko bitarteko erabiliko dira musika ekoizteko, inprobisatzeko, musika entzuteko, ikus-entzunezko muntaketak egiteko, eta soinuak manipulatzeko.. Ikasgai honetan ere musika-tresna berriak ezagutuko ditugu eta gitarra eta harmonika ikasten hasiko gara.
METODOLOGIA	Laugarren DBHn musika ikasgaia hautazko ikasgaia da, batez ere praktikoa, eta musika-talde bidez hainbat proiektuetan jardutea du helburu.
EBALUAZIOA	Ebaluaziorako ikasgelan lantzen denaren eguneroko behaketa hartuko da kontutan; bai kantua eta musika-tresnen interpretazioari dagokionez, eta baita ikasleek egindako lan eta proiektuen aurkezpenei buruzkoa ere.
OHARRAK	Harmonika bat behar da(Institutoan eskuratuko da).